

HAURREN KATEKESIA

“HONELA BIDALTZEN ZAITUZTET”

HELBURUAK:

1. Neskato eta mutiko bakoitzak ikus dezala Jesusek misiora bidaltzen gaituela: “ezkutatutako altxorra aurkitu”.
2. Elkarrekin, misiolariak bidaltzen dituela jakin. Pertsona horiek fedearen unibertsaltasuna eta poztasuna erakusten digute.
3. Neskato eta mutikoak konpromisoa gauzatzera bultzatu.

IKUSI

1.- Saioaren hasieran, gure egitasmoa aurkeztuko diegu: **bidaia egingo dugu eta altxorra aurkitzeko misioa daukagu.**

Beharrezko guztia eraman behar dugu. Denon artean osatuko dugu altxorraren bila joateko bidaia horretan ezinbestekoak diren gauzen zerrenda.

Epaitu aldiko hausnarketan laguntzeko, beharrezko gauzen inguruko ideiak aurkezterakoan, ondorengo hauek ager daitezela; gero beren esanahiaren inguruan jardungo dugu.

- GPSa, iparrorratza, mapa... (orientatu egiten gaituzte, gidatu, bidea erakusten digute...).
- Motxila (lagungarria da, bidaiari behar duguna sartzeko balio du...).
- Bota onak (oinetako egokiak behar ditugu, bidea zailtzen denean, aurrera egiteko).
- Eskularruak (eskuak hotzetik babesten dituzte, ondo heltzeko balio dute...).
- Jatekoa (elkarbana dezakegun, aurrera egiteko indarra ematen digun janaria...).
- Soka (bide zailak elkartuta igarotzeko balio du...).
- Mugikorra (zailtasunik izan ezker, komunikatzeko balio du...).
- ...

EPAITU

Jesusek dei egin digu bidaia honetan, altxorra aurkitzeko misioan parte har dezagun.

Mateo 13, 44 irakurriko dugu: **altxor ezkutuaren parabola.**

Parabola irakurri ondoren, irten den elementu bakoitzari Jesusen balioetako bat egotziko diogu:

- Janaria: ELKARBANATU.
- Soka: LAGUNTZA.
- Mugikorra: KOMUNIKAZIOA.
- Botak: AURRERA EGITEKO JARRERA.
- Eskularruak: ONTASUNA, ADISKIDETASUNA.
- MP3: POZTASUNA.
- Botikina: GEURE BURUA ETA BESTEAK ZAINTEKO JARRERA.
- GPSa, iparrorratza edo mapa: JESUSEN MEZUA, BERE EBANJELIOA, BERE BERRI ONA...
- Motxila: JESUEN BALIOEN GORDAILU IZANGO DEN GURE BIHOTZA
- ...

Misiolarien testigantzak:

Misiolariak Jesusen deiari erantzunez egiten dute bidaia eta lehen aipatu dugun guztia daramate motxilan. Manu eta Eguzkineren testigantza eskainiko dizuegu. Bilboko Elizbarrutiko gazte hauek 2010ko otsailean joan ziren MIsinoetara eta orain Palenquen (Los Ríos – Ekuador) daude, Jesusen deia entzun, bidaia egin eta altxorra aurkitu dutelako.

Eguzkine Arrigorriagakoa da eta 27 urte ditu. Eskaut talde baten hasi zen eta erantzukizun desberdinak izan zituen bertan. Heziketa jaso eta bereizketa egin ondoren, Misioetara joateko urratsa eman zuen. Manu, Algortako 28 urteko gaztea da, mundu honetan konprometitzeko gogoia erakutsi du beti eta aurretik eskaut taldeetan eta politika arloan jardun zuen. Misioetarako Bilboko Elizbarrutiko Ordezkaritzan egon zen.

Hauxe diote:

Eguz: “Neu naizena eman nahi diet: **nire alaitasuna, harremanak izateko erraztasuna, erraz egokitzea, baikorra izatea**”.

Manu: “aldaketarako **ilusioa, indarra, samurtasuna** eman nahi diet. **Elkarri eskua eman eta zuzentasunaren bidetik aurrera egitea** da kontua. **Jesusi jarraitu, zuzentasunez jantzitako bidetik.** Eguneroko lana **ilusioz egin**”.

Manu eta Eguz: “**eskuzabaltasuna, harrera, elkarbanatzea, konpromisoa, borroka eta antolakuntza** dira Ekuadorreko gizon eta emakumeen balioak. Ez dira babesgabeak, indar asko dute jasaten duten zapalketazko egoeratik irteteko. **Askok dute guri erakusteko.** Bizitzaren puzzlearen beste pieza batzuk dira; pieza horiek uztartuko ditugu eta beren seinalea utziko digute. Azkenean, horrela osatzen gara pertsona bezala. Beren fede bizipena guztiz desberdina da eta alderdi hori garrantzitsua da”.

Bukatzeko, hauxe diote: “**zuzentasunaren aldeko lana Hegoaldean bezain garrantzitsua da Iparraldean. Denok dugu zerbait emateko.** Elizbarrutietako misioak euskal Elizaren konpromisoa dira; Eliza honek bidaltzen gaitu, txirotuekiko eta Hegoaldeko herrialdeekiko konpromisoaren zeinu bezala.

la gazteren batek gurekin bidea egiten duen!”.

‘Los Ríos’ aldizkaria, 235. alea, 34-35 or.

- Zein balio edo jarrera daramate Manu eta Eguzek motxilan?
- Manu eta Eguzek Ekuadorreko jendearen laguntza dute beren misioa aurrera eramateko. Zein balio aurkitu dute beraiengan?
- Zein da Manu eta Eguzek aurkitu duten altxorra? (...gizaki guztiok berdintasunean bizi eta zoriontsu izan gaitzen lan egin, zuzentasunaren alde jardun Iparraldean zein Hegoaldean. Denok dugu zer eman, txirotuekiko eta Hegoaldeko herrialdeekiko konpromisoa da).

Hauxe da altxorra:

Jesusen balioekin, Jainkoaren seme eta alaba garela jakin eta Munduko gizon eta emakume guztiok berdintasunean bizi eta ZORIONTSU izan gaitzela lortu.

EKIN

Jesusen deiari erantzuteko prest gaude?

Zer egingo dugu munduko gizon eta emakume guztiok berdintasunean bizi eta zoriontsu izan gaitzen...

- etxean, familiarekin?,
- ikastetxean, ikasgelan, ikaskideekin?,
- adiskideekin?,
- katekesian?

Konpromisoa errazago hartzeko, Katekesian atera diren balio edo jarreretako bat aukeratu.

Domund eguneko eukaristia prestatuko dugu: sinboloak, otoitzak, abestiak... (katekesian eta eskolan prestatu duguna eskainiko dugu).

HAURREN KATEKESIA - "HONELA BIDALTZEN ZAITUZTET"



**Berri Ona hots egitera bidaltzen zaituztet:
Jesusen balioekin, munduko gizon eta emakume guztiok
Jainkoaren seme-alaba bezala, berdintasunean bizi eta
ZORIONTSU izan gaitezela lortu.**



CATEQUESIS INFANCIA

“ASI OS ENVIO YO”

OBJETIVOS:

4. Que cada niño y niña descubran que Jesús nos envía a realizar una misión: “encontrar el Tesoro escondido”.
5. Reconocer que los y las misioneras son enviadas por la Comunidad. Esas personas nos reflejan la universalidad y la alegría de la Fe.
6. Motivar a los niños y niñas a realizar un compromiso.

VER

1.- Para comenzar la sesión se plantea lo siguiente:

Vamos a hacer un viaje y tenemos la misión de encontrar un tesoro.

Tenemos que ir bien equipados. Vamos a hacer una lluvia de ideas que nos ayude a hacer una lista de lo que es importante llevar durante el viaje para encontrar el tesoro.

Para ayudar en la reflexión del Juzgar, intentaremos que salgan los siguientes elementos y dialogaremos sobre lo que significan.

- El GPS., la brújula, un mapa,...(nos orienta, nos guía, nos muestra el camino, ...).
- Una mochila (nos ayuda porque vamos a meter lo que necesitamos para el viaje,...).
- Unas buenas botas (el calzado nos ayuda avanzar si el camino se hace difícil,...).
- Unos guantes (nos protegen las manos del frío, nos ayuda a sujetarnos para avanzar,...).
- La Comida (el alimento que podemos compartir, que nos da energía para seguir,...).
- Una cuerda (nos ayuda pasar unidos por caminos difíciles,...).
- Un móvil (nos permite comunicarnos si nos encontramos con alguna dificultad,...).
- ...

JUZGAR

A este viaje, a esta misión de encontrar el tesoro nos ha invitado Jesús.

Leemos Mateo, 13,44. **La parábola del Tesoro escondido.**

Después de leer la Parábola, daremos un significado a cada elemento que ha salido para el viaje con los valores de Jesús:

- La Comida: EL COMPARTIR.
- La Cuerda: LA AYUDA.
- El móvil: LA COMUNICACIÓN.
- Las botas: LA ACTITUD DE AVANZAR.
- Los guantes: LA BONDAD, LA AMISTAD
- MP3: LA ALEGRIA.
- El Botiquín: LA ACTITUD DEL CUIDADO HACIA NOSOTROS Y NOSOTRAS Y HACIA LOS DEMAS.
- El GPS., la brújula o el mapa: EL MENSAJE DE JESUS, SU EVANGELIO, SU BUENA NOTICIA,...
- La mochila representa NUESTRO CORAZÓN DONDE VAMOS A GUARDAR LOS VALORES DE JESUS.
- ...

Testimonios de misioneros y misioneras:

Los misioneros y misioneras hacen el viaje llamados por Jesús y llevan en la mochila todo lo que hemos expresado anteriormente. Os ofrecemos el testimonio de Manu y Eguzkine, unos jóvenes de la Diócesis de Bilbao que en Febrero del año 2010 dieron el paso de ir a Misiones y se encuentran en Palenque (Los Rios-Ecuador) porque aceptaron la invitación de Jesús a realizar el viaje y han encontrado el tesoro.

“Eguzkine es una joven de 27 años de Arrigorriaga que comenzó en el escultismo, teniendo en él diferentes responsabilidades. Junto con la formación y el discernimiento le ayudaron a dar el paso de ir a Misiones. Manu es un joven de Algorta de 28 años con ganas de comprometerse con este mundo, proviene también del escultismo y del compromiso político. Trabajó en la Delegación Diocesana de Misiones de Bilbao.

Ellos nos transmiten:

Eguz: “Quiero aportarles lo que soy yo, alegre, sin problemas a la hora de entablar relaciones, me amoldo fácil, soy positiva.”

Manu: “Quiero aportarles ilusión por el cambio, energía, ternura. Se trata de darnos la mano y avanzar en un camino de justicia. Seguir a Jesús a través de ese camino de justicia. Aportar ilusión en el trabajo diario”

Manu y Eguz: “Los valores de las gentes de Ecuador son la generosidad, la acogida, el compartir, su compromiso y su lucha, su organización. No son desvalidos, tienen el mayor potencial para cambiar la situación de opresión que viven. Tienen mucho que enseñarnos. Son otras piezas del puzzle de la vida, iremos encajando y dejarán su seña. Al final así nos vamos haciendo como personas. Su vivencia de la fe es muy distinta y ese aspecto es muy importante”.

Para terminar nos dicen: “La labor por la Justicia es tan importante en el Norte como en el Sur. Todos tenemos que aportar. Las misiones diocesanas son un compromiso de la iglesia vasca, vamos enviados por esta Iglesia, es un signo de su compromiso con los empobrecidos y con los países del Sur.

Que se anime algún joven para ir a hacer camino con nosotros”.

Revista Los Ríos nº 235, Pág. 34-35

- ¿Qué valores o actitudes llevan Manu y Eguz en la mochila?
- Para cumplir la misión Manu y Eguz cuentan con las gentes de Ecuador, ¿qué valores han encontrado en ellos y ellas?
- ¿Cuál es el tesoro que han encontrado Manu y Eguz? (...trabajar para que todas las personas vivamos en igualdad y seamos felices, trabajar por Justicia, importante en el Norte como en el Sur, todos y todas tenemos que aportar, es el compromiso que tenemos con los empobrecidos y con los países del Sur)

El Tesoro es:

Con los valores de Jesús, saber que somos hijos e hijas de Dios y conseguir que todas las personas del Mundo vivamos en igualdad y seamos FELICES.

ACTUAR

¿Aceptamos la invitación que nos hace Jesús?

¿Qué vamos a hacer nosotros y nosotras para que todas las personas del mundo vivamos en igualdad y seamos felices?:

- ¿en casa, con la familia?
- ¿en el colegio, en la clase con los compas?
- ¿con los amigos y amigas?
- ¿en la catequesis?

Para facilitar el compromiso elegir una de los valores o actitudes que han salido en la Catequesis.

Preparamos la Eucaristía del Domund, símbolos, oraciones, cantos,... (Ofrecemos lo que hemos preparado en la catequesis y en la clase).

CATEQUESIS INFANCIA - "ASI OS ENVIO YO"



**Yo os envío a Comunicar la Buena Noticia:
Con los valores de Jesús conseguir que todas las personas del Mundo
vivamos en igualdad y seamos FELICES como hijos e hijas de Dios.**

